

IHAUTERIAK

(Hiru gertaldiko antzerkia)

Jokalariak : *Guarda* : 55 urte, ilargi arpegia, kasik beti irriz mintzo.

Jenerala : 50 urte, idorki mintzo, usu zintzurra karrakatuz.

Fraile : 40 urte, leun bainan fermu.

Karabinero : 30 urte, idor, behakoa zalu eta mesfida.

Ertzo : 45 urte, arpegi gozo, zerutiar.

Matrona : 45 urte, arpegi gordin eta gaxto.

Pexeta : 55 urte, edozein.

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua : Gure muga huntan gira. Mugaz bertzaldean, karabinero bere etxolan. Mugaren erdian, gorputz bat zazpi pusketan : Hiru hunaindian, lau haraindian.

GUARDA . - (*Agertzen da, buruari hazka eta aharrosika. Seinale du mozkorondo dela*) Edana, lagun ona... Bai segur, ez balu hor biharamuna... Atzo bentzutu nintian bizpahiru... Oro espainolak... Bizpahiru botoila, Malagako gozotik... Ez mia heien ageririk aduanako paperetan... Ez nintian paperetan sartu, bainan klik, nere tripa-kakuan... Berdin, gero ere edatekoak ziren. (*Betbetan ikusten du gorputz puskatua*) Heu !... Oi-oi-oi !... Zer da hau ? Zer gertatzen da hemen ? Gizon bat puskatua ? Oi-oi-oi !... Hemen zango bat !... Hor, bertze bat... Bat, bi, hiru... Hiru puska. Oi-oi-oi... Bainan bainan zer, gertatzen da hemen ! (*Karabinero deituz*) Errak to, hi, karabinero !... Ho karabinero ! (*Bere buruari mintzo*) Nor ote da karabinero mutur beltz hori ? Berri zonbait, oraino ere... Bat gehiago... Bertzalde hortan, karabineroak sortzen dituk, onddoak larrazkenean bezenbat. Diotenaz, hor, hiru mutikotarik bat ateratzen omen da bere amaren sabelatik, ezpainak muztatzeekin eta pixtola bat sahetsean... Beharrik horko gobernuarentzat !... Bertzenaz, bakea nola begira ? (*Oihuz*) He, karabinero, haugi hunat !

KARABINERO . - Zer da !

GUARDA . - Zer den galdetzen duk ! Ez duk ikusten hemengo saltsa ! Gizon hau, zazpi pusketan ! Lau hor eta hiru hemen !

KARABINERO . - Eta gero !

GUARDA . - "Eta gero" diok ? Zer uste duk ? Puska horiek, kaka pikor batzu direla edo zer ?

KARABINERO . - (*Hotz*) Huna muga... Muga hunek baditu bi eskualde. Zure eskualde hortan manatuko duzu, bainan ez sudurrik sar mugaren hunaindian.

GUARDA . - Nungo pittika zukan, to, hire ama, holako birikaren jabe den umea sortzeko ?

KARABINERO . - Zuk errana edo iazko haizea, berdintsu dira neretzat. Ez da nere falta, gorputz puska horiek, mugaren bi eskualdetan balinbadira. Zuk bilzkitzu zureak, nik bilduko ditut nereak.

GUARDA . - Zer duk, gorputz bera, bi nazionen artean puskaturik, lurperatu nahi ?

KARABINERO . - Eta gero ? Zuri edo neri zer zaigu ?

GUARDA . - Eta, hil hori, hola lurperatu nahi duk, deus inkestarik egin gabe, nola ote den hortaratu ?

KARABINERO . - Hila hil da... Zer behar dituzu ? Puska horiek usaintzen hor utzi ? Doatzila pala eta pikotzari.

GUARDA . - Urde karabinero basa ! Ez duzue segur, lehen aldia, muga huntan, pala eta pikotzaz, zuen krimak tapatzen dituzuela. Bainan, gaurko huntan, agerian beharko duzue jokatu. Hor izanen gaituk zuen laguntzeko, inkestaren egiten.

KARABINERO . - Ba ote dakizu zer derasazun ?

GUARDA . - Ez... Hi, hunat etorri artio egon nauk, nere ofizioa ikasteko. Nork ezarri dik, to, gizon hau, hola, zazpi pusketan ? Ez ahal dakik hortaz deus ere ?

KARABINERO . - Galde hori egin-ozute zure eskualdeko jenderi eta ez hemengoeri... Frantses ustelak ! (*Sartzen da bere etxolan*)

GUARDA . - (*Bakarrik*) Habil, mutur beltza, habil hire zorrien hazterat !... Bon, eta orai behar dut paperean ezarri, gertatuaz zer dakidan. Horixe da, nik maite ez dudana. Bainan, zer debrutako, gizon hau etorri da hiltzerat, gisa huntako lekurat !... (*Hartzen ditu lapitz eta papera*) Bon, egin dietzogun legezko galdeak... (*Hilari mintzo*) Errak to, nola dituk izen-deiturak ? Ha... ez du erreputarik emaiten !... Ala... zer ote da ? Emazte bat edo zer ?... Gaurko egunean, denak berdin galtzak soinean dabilta-ta... Erran no, hi, nola ditun izen-deiturak ? Mintza hadi, no !... Ala, zer haiz, mutua !... Bon, hago beraz ixilik !... Erradazue orai, nik zer behar dudana izkiriatu paper huntan !... Bai-eta, zer debrutako jende hau etorri den hiltzerat toki huntarat ! Ha, huna matrona heldu ! (*Matrona agertzen da*) Erran no, hi, matrona, hire ofizioa baitun jenden biluztekoa, ikusteko ean kontrabandarik gordetzen dutenetz, hiretzat badinat hemen lan bat xarmanta !

MATRONA . - Zer lan duzu neretzat ?

GUARDA . - Hurbil hadi eta so egin-zan... Zerria hil-eta bezala dun hemen. Xingarrak alde baterat. Tripak eta burua bertzerat.

MATRONA . - Hooo ! Zer gertatu da hemen ? Jesus ! Nor da, hola xehakatua den hil gaixo hori !

GUARDA . - Nik ez zakinat !... Ez zakinat nor den, ez-eta, urrixa ala orotsa, zer den !

MATRONA . - Jes, ez duzu ikusten gizonkia dela ?... Gutixago edan izan bazinu, ez zintazke nehoren beharretan, hortaz konturatzeko.

GUARDA . - Hik, zertarik ezagutzen dun, hil hori gizonkia dela eta ez emaztekoa ?

MATRONA . - Aski diozu ongi so egitea... Hori, argi eta garbi seinale da soinean dituen arropetarik !

GUARDA . - Bon, mia zan halere ! Ni, ez naun itxurari fidatzen. Lumeroari baizik... Ardia balinbada, ez dinat gero marroa dela ezarri nahi nere paperean.

MATRONA . - Aski duzu zuhaurek miatzea. Nik, biziak ditut miatzen eta emaztekiak bakarrik. Hori gizonkia da eta hila.

GUARDA . - Bon, jar hadi nahi badun greban, bainan ez hadi otoi lotsatua agert horren miatzeko, gizonkia delakoan. Ez din bererik, hire burua, ohoratzen aritzea, nere aintzinean. Badakin berdin, nik bazakinat hi zer haizen.

MATRONA . - Errazu, zuk, nun duzu errespetua ! Ez dautzut nik erraiten, sudurra tapa ahalako edari usaina duzula !

GUARDA . - Ez dainat nik ere erran, galtzen miatzea maiteago dunala, zaien miatzea baino.

MATRONA . - Zure xuriketak egin-zkitzu eta bertzenak beren gain utz.

GUARDA . - Bai, konpainia onean sartua naun, no, ni hemen. Alde batetik, matrona-patrona, ondoan hil puskatua, eta bertzaldetik, hortxetako mutur beltz hori.

KARABINERO . - (*Haserre*) Errazu, hil bat ez bazaizu aski muga huntan, bigarren bat berdin planta dezakegu gero !

MATRONA . - Emotzu bi tiro, emotzu, zikintsu horri !

GUARDA . - Ez nauk batere hiri fido... Ofizio hortakoak baitzirezte zuen arropakoak... Errak egia : Zonbat gizon hil izan dituk gaur artio ?

KARABINERO . - Ez uste izan gero, muga gure artean dela-ta, oro haizu zaizkizula. Jaungoikoa lekuko, hor izanik ere, berdin berdina bi tiro botako baitauzkizut, aski nazkatzen banauzu.

MATRONA . - Bota, bota ! Noizbait ixil dadila aho zikin hori !

GUARDA . - Bazakiat hire Jaungoikoak, jende tirokatzea onartzen duela eta batzuetan manatzen ere, zerua irabazi nahi duteneri. Bainan, gaizoa, oroit hadi gurutzada santua bururatua dela. Eta Hitler ala Mussolini, ez dituzuela gehiago hor, zuek zeruan sartzan laguntzeko.

KARABINERO . - Ez eta zuek Napoleon, zuen larderiaz guri beldurra sartzeko.

GUARDA . - Utzak Napoleon, den tokian. Aspaldi duk zizari bazkatzen ari dela. Agian, gaurko bertze Napoleon batzu, laster joanen dituk haren laguntzerat.

MATRONA . - Bai, eta, zu ere heiekin.

KARABINERO . - Anartean bakea emozu hemengo jendeari. Abisu hau emaiten dautzut zure onetan. (*Sartzen da bere etxolan*)

MATRONA . - Ez da goizegi, norbaitek noizbait ahoa hesten baitio. (*Ateratzen da*)

GUARDA . - (*Bakarrik*) Pasori inbido, inbidori hordago, hordagori iduki bainan nere papera beti berdin garbi... Matronak ez eskurik zikindu nahi. Eta mutur beltzak, bere eremuak zaintzen ongi. Bon, hil huni, azken aldikotz, mintza gaiten fermuki : Errazue, zuek, mugaz bertzaldeko puskak, jin gogo duzue eskualde huntarat, bai ala ez !... Ez duzuenaz geroz ihardesten, hanbat gaxto zuentzat !... Legearen izenean, hemendik aintzinat eta betikotz, izanen zirezte "desertur". Zauzte hor edo zoazte debruetarat, bainan ez sar Frantzian. (*Ateratzen da, nazkatua, ez baitaki zer izkiria bere paperean*)

MATRONA . - (*Sartuz eta eskualde guzietarat behatuz, hurbiltzen da karabineroenganat*) Nola hil duzu ?

KARABINERO . - Bonba bat ezarri diot eskutan, erranez ean paketa ttipi hori eremanen zuen holako lekurat. Bonba zartatu zaio. Horra hor ondorioa !

MATRONA . - Hainitz diru bazuen sakeletan ?

KARABINERO . - Zituenak kendu diozkat... xo, xo !... Norbait heldu da... Gero eginen ditugu konduak. (*Biak gordetzen dira*)

FRAILE . - (*Agertzen da, liburu bat irakurtzen duela. Noizbait ikusten du gorputz puskatua. "Aitaren" eginez*) Jesus, Jesus, zer da hau ! Jainko ona, urrikal zaite hunen arimaz ?... Eta nehor ez hemen !... Zer gertatzen ote da ? (*Karabinerori mintzo*) Ez zirea ohartu, gorputz bat badela hemen, dena puskatua ?

KARABINERO . - Ba, fraile-aita, ikusia dut, aintzindariak abisatuak, ditut... Heien beha nago.

FRAILE . - Zer ote zaio ? Auto zonbait, gainetik iragan edo zer ?

KARABINERO . - Ez dut uste... Gaua zen... Bunbako bat entzun dut... Berehala hurbildu naiz... Eta, gorputz hau aurkitu dut, den bezala.

FRAILE . - Zer gertatu ote da ba ? Zer zaizu iduritzen ?

KARABINERO . - Ez dakit... Iduripena dut terrorixta bat zitakela, bonba bat zekarkena. Eta, nik uste, hemen iragaitean, bonba hori zartatu zaio.

FRAILE . - Ta, nor ote da ?

KARABINERO . - Ez diozkat sakelak miatu... Aintzindarieri baita inkestaren egitea, gauzak diren bezala nahi ditut utzi, hek etorri artio.

MATRONA . - (*Agertuz*) Zer diozu, fraile-aita, heriotze latz huntaz ?... Azkenean, terrorixta horiek, kasik beti, beren burua hondatzen dute.

FRAILE . - Ba, Ebanjelioan errana da : "Ezpata erabiltzen duena, ezpataz hilen da".

MATRONA . - Egi handia hori !

FRAILE . - Ba, bainan egia denentzat. Mugazaintzat ere bat !... Zeren-eta, aitor-azu, mugazainen tiroek, hemen gaindi, asko jende badaukatela zauriturik.

MATRONA . - O fraile-aita, gu ez gira gaxtakeriatik bizi, bainan ordrearen alde, lan egitetik.

FRAILE . - Bai, bai... Dena da ean zuen ordreak, jendeen arteko maitasuna duen laguntzen edo trabatzen.

MATRONA . - Hil hau bezalako terrorixta batekin, nola nahi duzu, gu, maitasunean sartzea ?

FRAILE . - Hori ere nonbaiteko amaren semea da. Jainkoak daki nola den hortaratu.

MATRONA . - Jainkoak ez badu gure ofizioko jenderik nahi, aski ditu jende gaxtoak ontzea !

FRAILE . - Delako terrorixta hunek ez ote lezake, gauza bera erran, bainan aintzin-gibelka : Jainkoak ez badu jende gaxtorik nahi, aski ditu poliza armatuak kentzea.

GUARDA . - Ai-ai-ai ! Kasu, fraile-aita, kasu Ebaren alaba horri !...

MATRONA . - Bon, su-pitx hori ginuen hemen eskas !

GUARDA . - Orroit zaite zer gertatu zen fruitu debekatuarekin !

FRAILE . - (*Irriz*) Beharrik hor dugu zu bezalako baten guardia, bide galgarritik begiratzeko !

MATRONA . - Ni banoa hemendik, ez baitut horren ele zozoen entzuteko gutziarik.

GUARDA . - Bazakinat badunala ni baino puttu leunagorik, bainan zer nahi dun : Denetarik bagaitun munduan !

MATRONA . - *(Ateratzen da, sorbaldak altxatuz eta murmurikatuz)* Zozoa !... Zozo handia !...

FRAILE . - Ikusten dudana, galernak izaiten dira zuen lurreko parabisu huntan !

GUARDA . - Bai, liztafina bizi den lurretan, piperrak laster dira gorritzen.

FRAILE . - Nola ez, zu bezalako jorrariarekin !...

GUARDA . - Eta zu, zertarat etorria zira... Piper jorratzerat ala saltsatzerat ?

FRAILE . - Ez bat eta ez bertzerat !... Hil hau da nere lantegia.

GUARDA . - Eman diozu holaxet *(gurutze ttipi bat eskuz egiten du)*, bertze munduan ongi hartua izaiteko billeta ?

FRAILE . - Billeta hori, hil aintzin ematen da eta ez hil ondoan. Zergatik ez nauzu deitu, ordu zelarik ?

GUARDA . - Eska-zozu hori hortxeko Jainko-adoratzaile zintzo horri !... Horrek dazki holako xehetasunak !

KARABINERO . - Frantses perttoli, putz-untzia !

GUARDA . - Horra zer katoliko pizkorra duzun, jaun hori ! *(Gurutzearen seinalea egiten du espainol moldean)* Holako simagre zernahi egiten badaki, bainan hil aintzin, apeza deitu behar dela ez daki. *(Irriz)*

FRAILE . - Bon, joana joan da ! Bainan, pentsatzen dut ez dituzuela gorputz puska hauk hola, elgartu gabe, barreiatuak utziko !

GUARDA . - *(Trufaz, predikuan bezala mintzatuz)* Girixtino maiteak, gorputz bat eta haragi bat egiten duzue. Gizonak ez beza berex, Jainkoak elkartu duena !

KARABINERO . - To, gaizo apostolua, hori bederen ikasi zuen bere katiximan !

FRAILE . - Ba, hori errana da senar-emaztentzat. Eta hek, gorputz bat eta haragi bat egin behar badute, bietan behar lukete "bat" egin, hemen diren gorputz beraren puska horiek.

GUARDA . - Gaixo fraile-apeza, hortan arras ados nauzu zurekin ! Bainan zure aldeko fededun handi hori, ez da beretik ari. Nola nahi duzu axola ukan dezan gorputz batetik, haragi bat egiteko ? Ez eta bitarik "bat" egitea, ez zaio aski... Hirutarik "bat" egitea du bere neurria.

KARABINERO . - *(Haserre)* Mihi zikin ustela !

GUARDA . - Ez hadila samur, gaizoa... Hire kofesioa egiten ari nauk fraile-aitari. Hola, aitormena errexago izanen duk hiretzat !

FRAILE . - Kofesioa, "Bakotxa bere" da gero ! Aitor-atzu zureak, bertzenak beren gain utziz.

GUARDA . - Bai, onartzen dut hori, fraile-aita, bainan nola, jauntto hori, gezurtietan gezurtiena baita, argitu nahi zaitut, ez zaitzan zakuan sar. *(Ertzo sartuz, orgatxo bat pusatzen duela, ohartzen da kalapita bat badela... Orgatxo ganean jarririk, jestu asko eginez, kalapitan parte hartzen du. Kalapita mintzen delarik, beldurrez joa, ateratzen da)*

FRAILE . - Eta zuk, noiz egingo duzu zuhauren kofesioa ?

GUARDA . - Ni, girixtino ona naiz. Hortakotz ez noa kofesatzerat.

FRAILE . - Jes, hauxe jokabide bitxia !

GUARDA . - Ba, ez dira kofesatzerat joaiten mandilgotik bizi direnak. Eta ni, hetarik naiz.

FRAILE . - Nolaz hori ?

GUARDA . - Ez ahal dakizu mugazainak direla kontrabandixtarik handienak ? Eta, ez ahal dakizu, karabinero sartzeko, behar dela bere arima gobernuari saldu ?

FRAILE . - Arima saldu ?

GUARDA . - Arima saldu ba ! Karabinero horrek, zin egina du, bere aintzindariari obedituko diotela eta hek manatu guziak, on ala tzar, beteko dituela... Beraz, horrek, bere arima saldua du.

KARABINERO . - Berea ezin salduz ari da, nehork ez baitio erosi nahi.

GUARDA . - Eta zu, fraile-aita, mesfida zaite alimale hortaz. Gaur, elizarat etortzen zaizu, jaun handi, Jainkoaren adoratzerat. Gobernuak hola manatzen dio-ta... Bainan, gobernu alda dadiela, eta bihar, elizarat etorriko zaizu, berdin berdina, aldarea tirokatzerat.

KARABINERO . - Asto tirokatzeko manua ukan baneza, banakike nortarik lot !

GUARDA . - Berak aitortzen du, fraile-aita... Horrentzat, jendeak dira asto batzu. Eta, ni hilen ninduken bezala, berdin hil lezake bere anderea... Eta hura bietan. *(Ertzo, solasak aintzina doatzila, ateratzen da)*

KARABINERO . - *(Errabian)* Zerri ustela ! Holakoeri, nik, bi bala... bi bala.

FRAILE . - Otoi, jaunak !...

GUARDA . - Karabineroen ofizioa, fraile-aita, bekatu untzi bat da. Untzi hortan, saltsa-maltsan bizi dira karabineroak eta munduko satan guziak.

FRAILE . - Oroit zaite, bat ala bertzea, tupin bereko saltsaki zireztela.

GUARDA . - Ez, nere tupinak ez du, horrenak bezain usain gaxtoa. Eta nik, nere itzalak aitortzen ditut... Horrek ez. Hori da zuriko... Ez dut gero erran : Zuria. Zeren-eta, horren azala zuria balinbada, horren barnea, ximineko keldarra bezain beltza baita.

FRAILE . - Ez ote duzu, zure buruaz, kukuruku gorasko jotzen ! Gure Jainkoak ez ditu gero maite haga gaineko oilarrak !

GUARDA . - Ez dakit ni haga gaineko oilarra naizen, bainan banakike erraiten zer den zure eskualdeko karabinero hori !

FRAILE . - Zer dela diozu ba !

GUARDA . - Karabinero hori eta bere iduriko guziak dira : Hitlerren burugainean hazitako zorri batzu.

KARABINERO . - *(Errabian)* Bota, bota beti pozoina !

FRAILE . - Ez zirea beldur, holako solasek ukan dezaketen ondorio gaxtoez ?

GUARDA . - Ni beldur ? Noren beldur ?

FRAILE . - Ez dakit, bainan, hola ari bazira, karabineroak ere, noizbait oldart ditazke gero !...

KARABINERO . - Ongi egiten duzu, fraile-aita, aho zikin horren abisatzea

GUARDA . - Zer uste duk ? Frantses guardak, Espainol karabineroen beldur girela. Atozte nahi duzuelarik. Horien kasatzeko, fraile-aita, gibel-aldeak aski ditugu. Guk, purrut-purrut egin-eta, erbiak bezala joanen dira denak ihesi.

KARABINERO . - *(Arma altxatuz, erotua)* Aski delarik, aski da gero ! Ikusiko dugu nor joanen den ihesi.

FRAILE . - *(Karabineroen armari lotuz)* Ez. Holakorik ez !... Eta zu, guarda, zoazi hemendik...

GUARDA . - Ba, banoa... Ez, horren beldurrez... Bainan zintzurra agortzen hasia dutalakotz. (*Ateratzen da, baina seinale du beldur dela*)

KARABINERO . - Doala eta, bere onetan, ez dadiela gehiago hunarat agert.

FRAILE . - Ha, eta gorputz puskatu hau beti hemen !... Hauk, ez ditazke hola utz.

KARABINERO . - Errana dautzut, fraile-aita, aintzindarien beha nagola, horietaz zer egin jakiteko.

FRAILE . - Bon, banoa, heien pixka bat mugiarazterat. (*Ateratzen da. Karabinero bakarrik. Bere etxolarat doa*)

ERTZO . - (*Agertzen da, bere orgatxoekin. Hauen gainean dakarzuki pala bat eta iguzki-onbrela bat*) Ha bon !... Denak joan dira !... Hobe !... Hola lanean aritzen ahalko naiz deskantsuan. Nik ez dezaket lanik egin, jendea kalapitan ari den lekuan. (*Goiti so egiten du*) Aro txarra, aro txarra, jende maiteak ! (*Onbrela idekirik, jartzen da orgatxoan gainean*) Parasol hau idekitzen dut, ez bustitzeko... Zuek ere, beharrik hor baituzue teilatua, buruen gainean... Ba, Parisetik heldu naiz... Jaun presidentarekin mintzaturik. Pompidou ba !... Ostatu ttipi batean nintzen. Ta, Pompidou-ri telefona kolpe bat eman nion, etor zadien, arroltze eta xingar nerekin jaterat. Eta, jin zen gizona... Ta, lastersko ale... Gormanta baita... Mintzatu ginen buruz buru, Europa berri bat muntatzeaz. Nere laguntza baitezpada behar zuela, erran zautan. Lanez itoa izanagatik, baietz ba, lagunduko nuela, hitzeman nion. Zeren-eta, presidenten artean ez badugu elgar laguntzen, populuak iretsiko gaitu... Ha, beharbada, ez nauzue denek ezagutzen Xuxen da. Batzuek nahiago dute politikan ez sartu... Ez baita laket bustitzea... Ni naiz, hemengo xoro, burtxoro eta ero guzien presidentea. Eta, president legezkoa gero. Bozak emanez hautatua. Beraz, nere kargua da, nere balioaren saria. Eta ez dut hori zor nehorri. Hortakotz, ez naiz ni nehoren xakur edo esku-makil... Bada hainitz hemen gaindi, ez baitezakete bertze hainbertze erran, beren buruentzat.

PEXETA . - (*Agertuz, Espainiako aldetik*) Errazu, Ertzo, noiz pagatuko dautazu, zor dautazuna ?

ERTZO . - Andere Pexeta, nik ez dut zorrik zure etxean. Beraz, zoaz zure zerbitzuen zaintzerat eta, utz nezazu ni bakean !

PEXETA . - Zu, atzo, nik zaintzen ditudan komunetan, sartu zinen. Eta gero, ihesi joan, hortakotz zor zinuen pexeta, neri pagatu gabe.

ERTZO . - Ba, egia da, zerbitzutan sartu nintzen. Bainan, deus ez nuen egin barne hartan. Beraz ez nintzen zurekin zorretan.

PEXETA . - Bai jauna. Komunetan sartu zinen eta beraz sar-paga zor dautazu.

ERTZO . - Paga-saria zor da, komunak zikintzen badira edo hango ura xahutzen bada. Nik ez nuen deus holakorik egin... Ez naiz ni aski eroa, zor ez dutanaren ordaintzeko.

PEXETA . - Ez badautazu ordaintzen lehenbailehen, zor duzun pezeta, dei eginen diot polizari. (*Ateratzen da*)

ERTZO . - Dei egizu, nahi baduzu, polizari, gobernadoreari, minixtroari edo debru zaharrari. Bainan, ez duzu, nere sakelatik, pilik ukanen !... Pexeta "pixinta" zu !... (*Hilari so dagola*) Horren begiak, neri so dagozi... Piztuko haiz, gaizoa, piztuko... Hor nauk ni... Bon, lot gaiten lanari ! Hementxet behar dut lurra itzuli eta, gorputz puska horiek, behar ditut landatu. Horien inguruan sartuko ditut zernahi lore mota : Xuri, gorri, ferde... Bon, goazen lanera !

(Lotzen da tirahala, lur itzultzen bezala, bainan laster gelditzen da) Lana, gauza sanoa da osagarriarentzat... Nik, ez banu lanik egiten erotzea segur nuke.

(Berriz lan eginik, gelditzen da) Haatik, beti buruz ari behar da lanean *(izerdia xukatuz)*, indarrak eta ahalak neurtuz... Hori ez zakiten lehengo zaharrek. Gaur, holako zernahi gauza berri ikasten da. *(Hilaren beso bat hartuz)* Hunako beso hau, landatuko dut hementxet. Hum, beso indartsua !... Agian ongi pusatuko du !... Holako batzuen beharra badugu, panpako on batzuen zonbaiti emaiteko.

KARABINERO . - *(Agertuz)* Errak, Ertzo, zer ari haiz hor ?

ERTZO . - Zer ari naizen ? Aski duzu so egitea... Lore eta gorputz puska landatzen.

KARABINERO . - Muga-bide erdi erdian ?

ERTZO . - Beharko, muga kentzekotan.

KARABINERO . - Ta, zer egin gogo duk hemen ? Nun haizela uste duk ?

ERTZO . - Muga huntako haga kenduko dut, jendea ibil dadien harat eta hunat, deus trabarik gabe. Mugako eremu hautan denetan, landatuko ditut gorputz puska eta loreak. Han hemenka ezarriko ditut jarleku batzu, jendea pausatzeko.

KARABINERO . - Eta, gure guardiako etxoletarik, zer egingo duk ?

ERTZO . - Ez kexa. Bakotxak ukanen du bere baliamera. Bat, beteko dut lore untziz, bertzea arrain gorriz, bertzea izanen da haurren jostaleku eta hola, denetan ezarriko ditut gauza pollit-atsegingarri batzu.

KARABINERO . - Eta gu, zer bilakatuko gaituk ?

ERTZO . - Ez zaituztet ahantzi. Ez zirezte izanen, orai artio bezala, denetaz higuindiak eta gaizki ikusiak. Zuen buruko kasola itsusi horien orde, ukanen dituzue baratzezainen xapel pollit batzu. Eta, armen orde, eskutan ibiliko dituzue lur laneko tresnak.

KARABINERO . - Arras eroa...

ERTZO . - Ez ote gintezke hola merkeago aterako, alferrak lanean emanaz !

KARABINERO . - Arras eroa !...

ERTZO . - Eta, muga hau kenduz, ez ote diotegu deneri zerbitzu eginen, mila nardamendu izaiten baitira hunen trebesatzeko ?...

KARABINERO . - Arras eroa !...

ERTZO . - Ilargirat joaiteko, paperik ez daukute eskatzen ; bainan ba, auzorat, gure etxekoetarat joaiteko... Ha gizona, gizona... arras eroa !

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Aintzineko bera... Alde batetik Fraile, bertzetik Guarda ari dira, bakotxa bere saskirat, gorputz pusken biltzen.

GUARDA . - Nago, fraile-apeza, zergatik zuek, elizgizonek, hola ohoratzen dituzuen hilen gorputzak eta, hain guti, bizi direnenak.

FRAILE . - Gorputz bizi ala hilari, berdin errespetu zor zaio. Biziari, arimaren laguna izan delakotz eta hari berritz josiko, mundu hau kraskatuko delarik.

GUARDA . - Hil hau ikusi duzularik, zure bihotza urtu da eta berehala joan zira, alkatearen eta polizburuen edo nik ez dakit norenganat, heieri eskatzerat huntaz arta har dezaten.

FRAILE . - Eta gero !

GUARDA . - Hil hau, bizi izan balitz eta zure beharretan, hoinbertze mugituko ote zinen hunen alde ?

FRAILE . - Zergatik ez ?

GUARDA . - Uste duzua, egun batez, haragi puska hauk, xingar bizi direla berriz bilakatuko ?

FRAILE . - Gure sinestea da hori. Hazi usteldutik landarea bezala gorputz usteldutik, bizi berri bat dela aterako.

GUARDA . - Hau baita mutil baten gorputza, izanen dea, zeruan, hunentzat, neskatxik.

FRAILE . - Zeruan ez da, ez mutil eta ez neskatxik. Han izanen gira denak berdin, aingeruen iduriko.

GUARDA . - (*Irriz*) Ikusten nauzu ni, aingeru bilakatua ?... Egia aitortuko dautzut. Zeruan ez bada, ez neskatxik eta ez zurrutako molderik, berdin zait neri zerurat edo debruetarat joan.

FRAILE . - Zerua, pixka bat konprenitzeko eta haren gutizia ukaiteko, beharrezkoa da, pottoka eta mandoek baino goraxago, bere izpirituaren alhatzea.

GUARDA . - Milesker ez bainauzu halere astoekin parekatu ! Dena den, zure ikusbidea da, tripa gainean badugula marra bat. Marra horren peko gorputz parteak, deus ez duela balio. Marra hortarik gorago diren bihotz burutan dela, gizonaren balio guzia.

FRAILE . - Ez dut nik holako xorakeririk atera. Gure gorputz puska guziek, balio bera dute. Denak dira eginak, bakotxaren zerbitzuko. Bainan, gorputza ez da gizonaren helburua. Arimaren sustraia baizik.

GUARDA . - Arima eta arima, ez duzue bertze solasik. Gorputza ere hor dela kontura zaitzete ! Nik, aita saildua banintz, fraile eta serora guziak ezkontaraz nitzake.

FRAILE . - Bai, eta nik, aita saildua banintz, egun guziz, otoitz bat erranaraz nezokete, Jainkoak begira ditzan ezkonduen purgatoriotik.

GUARDA . - Mutur beltza heldu zaigu. Ni banoa hemendik. Hori, bi purgatoriotan sartua baita, ni baino maisu hobea ukanen duzu, auzi hunen xuritzeko. (*Jalitzen da*)

KARABINERO . - (*Agertuz*) Ez zaitu bederen sobera nardatu bere ahopaldiekin ?

FRAILE . - Ez... Batzuetan soberakinak jalitzen ditu. Bainan, soberakinetik neurria egitea errexago da, eskasiatik baino. Bon, ni ere banoa eta saski hau, zure gomendio ! (*Jalitzen da*)

KARABINERO . - Ongi da. (*Apur bat bakarrik*)

MATRONA . - (*Agertuz*) Errazu, noiz egin behar ditugu gure kontuak ?

KARABINERO . - Zer kontu ?

MATRONA . - "Zer kontu" diozu ? Trufatzen zirela nitaz ? Haragia saskitan dela ikusten dut, bainan nun duzu horrentzat neri hitzeman saria ?

KARABINERO . - Zuri hitzeman saria ?

MATRONA . - Ez ahal duzu ukatuko, gorputz hortan zen dirua, nerekin erdizkatzea, hitzeman zinautala ?

KARABINERO . - Nik hitzeman dautzutana bakarrik : Zuri sari zerbait emaita. Bertzerik ez.

MATRONA . - Eta, jakin dezaket zer emanen dautazun ?

KARABINERO . - Bazkari baten saria zuri emanaz geroz, ni kito naiz zurekin.

MATRONA . - (*Oihuz*) Errak to, ustel zikina hi, zer uste duk ! Eskale bati bezala, neri bi sos aurtiki-ta, eskuak garbi ateratzea ateka huntarik ?

KARABINERO . - Adi-zazu, zonbat diru, uste duzu, berekin zuela gizon hunek ?

MATRONA . - Hik nahi dukana. Nor deitu duk diru horren kondatzerat ?

KARABINERO . - Zer parte hartu duzu, zuk, lan huntan, sariaren erdia zuretzat eskatzeko ?

MATRONA . - Errak to, nork salatu dauk, gizon hori, salmenta bat eginik, diruz kargatua heldu zela ? Nork mozortu dik frantses guarda, gertakizun huntan, lekukorik ez dadien izan ?

KARABINERO . - Eta baduzu kopeta, zure egintza koxkor horientzat, diruaren erdia eskatzeko ?

MATRONA . - Oroit hadi sekretua erdizka dugula.

KARABINERO . - Zu ere, oroit zaite, sekretu hori saltzen baduzu ondorioak berdin erdizka ukanen ditugula !

MATRONA . - Ez, ez nauk aski xoroa izaneren, hemen gertatu dena salatzeke, bainan hire andereari ziozkaiat bi hitz erranen, bere senarra norekin dabilan, begiak idek ditzan.

KARABINERO . - Holako zikin berduratzen lotzen bazira, ez naiz gero, ni ere ixilik egonen. Aspaldi du, denek hemen zilatua ditugula, gure jeneral zahar horrekin, dabilzkatzun oilokeriak !

MATRONA . - (*Haserre gorrian*) Ni ? Ni, zuen jeneral horren oilanda. (*Hartzen du saskitik, gorputz puska bat*) Errak berriz, errak bietan !

KARABINERO . - (*Hunek ere, bere saskitik, gorputz puska bat hartzen du*) Ez dut erran oilanda, bainan oiloa. Zu bezalako atsoak, ez ahal du, oraino gazte delako ilusimendurik ! (*Elgarri joka lotzen dira, gorputz puska hortakotz baliatuz*)

MATRONA . - Faltsu ustel zikina, hi ! Zorritz betea ! Espainol usaindua !

GUARDA . - (*Sartzen da, elgarri joka ari direlarik eta berexten dituela*) Hep, hep ! Ezti zaizte, otoi, ezti, zuek, jende pare gisakoak. Zer dituzue molde horiek ? Gorputz puska horiek utz-kitzue beren saskietan ! Ala zer ? Ez ote zaizue aski, puska horien artean, muga bat izan dadien ? Horren gainerat puska horiek, elgarri zanpaka nahi dituzue har arazi ? Zoin ifernuko debruen umeak zirezte zuek ? (*Biek gorputz puska, berriz saskitan ezartzen dituzte*)

MATRONA . - (*Errabian*) Ba, guarda, jakin-azu eta deneri errozute, gizon hunen hiltzalea, hori dela !... Ba, zure aintzineko zerri ustel hori ! Horrek du, iragan gauean, gizon hau hil, hunen diruaz jabetzeko. (*Ateratzen da*)

KARABINERO . - (*Erotua*) Gezurtia ! Gezurti errabiatua, zu ! Jakin-azu holako solasen saria direla : Bi bala buruezurrean. Zoazi, zoazi lehenbailehen, zure jeneral zaharrarenganat ! (*Ateratzen da*)

GUARDA . - (*Bakarrik. Irriz populuari*) Errana den bezala : Artzainak samur eta gasnak agert ! Orain badakizue zoin errespetuzko jendeak dituzuen, muga hunen zaindari ! Haatik, ez hunarat abia zorbait pinta edariz kargaturik ! Konprenituko

baituzue orduan, guretzat ez bada errespeturik, zuentzat badela gero ! Ta, huna nun heldu zaigun delako jeneral zaharra... Adu behar ditu bereak eta asto beltarenak !

JENERALA . - *(Agertzen da. Karabineroak, arma presentatzen dio... Gero ere, zangoak tinkatuz da, aldi guziz, jeneralari mintzatzen)* Bon, hau da beraz delako gorputza ! Terrorixta... Terrorixta... Mugarik nahi ez duen gizona, mugak du garbitu... Ongi egina... Dagola hor zazpi pusketan.

KARABINERO . - Ba, berekin zeraman bonba bat zaio zartatu, hemen iragaitean !...

JENERALA . - Ez zuen bertzerik merezi !... Ongi egina... Muga hau da sakratua !... Sakratua delakotz, bere bizkarraren gainean ez du jasan ahal izan, ustel karga hori. Hor berean porroskatu du... Ongi egina !... Horrek bezala, denek ikas bezate zer den Espainia ! *(Oihuz, laster aldikatuz eta, aldi bakotx, besoa luzatuz)* España una !

KARABINERO . - Una !

JENERALA . - España grande !

KARABINERO . - Grande !

JENERALA . - España libre !

KARABINERO . - Libre !

JENERALA . - Arriba España !

KARABINERO . - Arriba !

GUARDA . - *(Irri-trufaz mintzo)* Errak to, hi jenerala, zonbat soldado dituk hire meneko ? Zeren-eta, zuek, Espainia hortan, hiru soldadoentzat omen baituzue jeneral bat !

JENERALA . - *(Saskia husturik, inkesta-neurrien hartzen ari dela)* Frantzia galdua ! Anarkixta, terrorixta, eta ustelkeria guziak sortzen eta hazten dituen lurra !

GUARDA . - Ba, eta diotenaz, jeneral bakotxak, zango bat balinbadu armadan, bertzea omen dik banko, komertzio edo industri handi batean. Ezpataz, moltsa omen dik zaintzen, moltsa ezpataz, eta, biak elkartuz, eliz-aldaretako Jainkoa.

JENERALA . - Holako gizon arrazak, puñalaz behar likek garbitu ; puñalaz ez bada, tiroz ; tiroz ez bada, napalmaz ; napalmaz ez bada, bonba atomikoz.

GUARDA . - Ez hadila hola asalda, gaizoa. Berdin, goiz edo berant, denak hilen gaituk. Bai hi eta bai ni. Pala eta pikotzak elkartuko gaitik.

JENERALA . - Ordrea... Ordrea da eskas mundu huntan... Hortako ehunetik hogoi fusilatzea aski liteke eta gaineratekoekin bakea ginuke.

GUARDA . - Bai, bai, hola hire mundua lukek porru landa bat, ongi lerrokatua. Hik, hire burua, porrutzat hartzea, paso !... Bainan, dena duk, ean hire mailerat jautsi nahiko duten bertze gizonak.

JENERALA . - Ni porrua ! Ni porrua ! Tiro bat, bi tiro, lau merezi ditu hola mintzo den gizonak. Karabinero, atxik zure arma prest !...

GUARDA . - He, emeki, emeki !... Muga hor duk gero eta hihaurek errana duk muga dela sakratua.

JENERALA . - Ha, nere ohorea !... Horra zer behar nuen entzun, adin huntan. Behazozu nere bular gainari ! Beha hor diren medaila lerroari ! Ez zirea lotsa hola mintzatzeko, zu, armetako gizona, armadako aintzindari bati !

GUARDA . - Ha, zera... medailak ! Ha ba, zonbat dituk !

JENERALA . - Bortz hemen dauzkazu, begien aintzinean. Eta jakin-azu, bertze zazpi baditudala etxean.

GUARDA . - Bortz eta zazpi hamabi. Nik jakin nahi nukena duk, horiek guziak, nola irabaziak ditukan !

JENERALA . - Nola irabaziak ? Nere odolaz, nere zauriez, nere zerbitzuez ! So egizu medaila huni ! Hau irabazi nuen : Pro mérito de Caballeria. Horrengatik dauka, gainean, zaldi buru hori.

GUARDA . - Nola erran duk : Pro mérito de Caballeria ?

JENERALA . - Bai, horixe bera. Zeren-eta nik bainuen erreberritu, Tudelan, armadako zaldien arraza guzia.

GUARDA . - Hik ?

JENERALA . - Nik ba, nik !

GUARDA . - Nolaz hori ?

JENERALA . - Nik nuen, garaño esperientziari esker.

GUARDA . - Ha !

JENERALA . - Ba, jakin-azu, nere aitatziren denboratik gaur arteraino, gure etxean, izan direla Nafarroako garaño hoberenak.

GUARDA . - Beraz, ezin ukatua, ongi merezitua dukala garaño medaila hori !

JENERALA . - Eta, bertze medaila huntan, irakurtzen ahal duzu : "Salvador de España. Todo por la Patria"... Erran nahi baita : "Espainiaren salbatzailea. Oro Aberriarentzat". Hau irabazi nuen, aleman eta italianoekin gudukan ariz.

GUARDA . - Noren kontra ?

JENERALA . - Espainol gorrien kontra.

GUARDA . - Ba, lan garbia egin huen !... Eta zer duk hortako medaila gurutzadun hori ?

JENERALA . - Hori ukana dut : Jesu Kristo, salbaturik... "Por merito de Santo Kristo del Cielo".

GUARDA . - Jes, nik uste nikan, Jesusek, gu gintuela salbatu eta ez guk hura ! Nola irabazi huen medaila hori ?

JENERALA . - Hori, marokanoekin gudukatuz...

GUARDA . - Beraz, Afrikako musulmanoen konbertitzeko !

JENERALA . - Ez, bainan heiekin gerla egin nuen, espainol girixtino gaxtoen konbertitzeko.

GUARDA . - Ta, armez tirokatuz, girixtino gorri hainitz, xuritu duka ?

JENERALA . - Frantses gorri ustela, zu !... Karabinero, bi bala prest atxik, bi bala !

GUARDA . - Ez, gaizo jenerala... Ez duk hau, tiroka aritzeko sasoina. Gerla bururatua duk eta ihizia, ez oraino idekia. Bertzalde, hau ere jakin-zak : Ez haiz, hemen, medailadun bakarra. Nik ere, hiru irabazi nitian.

JENERALA . - Zuk hiru medaila ? Zoin eta zergatik ?

GUARDA . - Hiru medaila ba : Bat -"Médaille des Anciens Combattants"- gerla egin dutalakotz... Obedi edo hil zukan legea, ta... ez hiltzekotz, obeditu behar. Bertze medaila diat : "Médaille des blessés de la guerre". Ixterra, bala batez trebesatua izan nian. Ez zakiat hortan zer merezimendu dudan. Bala, nik eskatu gabe, etorri zukan eta, nik nahi ala ez, nere izterrean sartu. Eta hirugarren medaila diat : "Médaille des prisonniers". Etsaiak, lurrean kolpatua, bildu nindikan. Nik ez nion bertzerik galdatzen.

JENERALA . - Ba, bainan aitor-azu zure medailak ez daitezkeela nereekin konpara : Ez nonbrez, ez eta merezimenduz.

GUARDA . - Ba, hiru medaileri, hamabi nausi dituk... Eta bertzalde, hik badituk, nik ez ditudan merezimendu batzu, garaño, Jesu-Kristo eta musulmanen hartu-emanetan sartua ibili haizelakotz. Bainan, halere, gauza bat behar dautak onartu... Pisurat, nere medailak, hirek baino balio gehiago dutela...

JENERALA . - Pisurat ?... Nere hamabi medailek, kilo batez gorago pisu dute. Ez ahal dute holako pisurik zure hiru medailek !

GUARDA . - Ez, eta hortakotz ditek, hire medailek baino balio handiagoa. Alabainan, gauza bat baduk ongi ezagutua : Medailek, zerbait balio ditek, berrehun grama azpiz pisu dutelarik... Berrehun gramatik kiloraino, arras guti edo deus ez ditek balio... Kilotik gorago, ebatsiak izaiten dituk.

JENERALA . - Karabinero, karga zazu zure arma... Holako solasik, ez dezaket jasan !...

GUARDA . - Tiroka lotu aintzin, utz nezak bertze zerbait erraiterat. Zonbatez aintzindaria baituk galondunago, eta hanbatez, harek ukaiten duen medailak, dik balio gutiago.

JENERALA . - Nun duzu adimendua hola mintzatzeko ? Ez ahal du, kargu handiagoa duenak, irrisku gehiago hartzen ?

GUARDA . - Irriskua bai ! Ni, lehen lerrotako zilotan nintzelarik, eguneko hogoi sos pagatua, nere jenerala, han zukan nonbait gibelean urrun, ongi pagatua eta aterbe onean aloitua.

JENERALA . - Ba, bainan gerla galtzen bada, nork du gehiago pekatzen ?

GUARDA . - Gerla galdua edo irabazia, nere jenerala, ni baino hobeki aterako zela, ez zakala ukan dudarik. Gerla galtzaile bakarrak dituk, han gelditu diren hilak, eta ere, betikotz errezelatuak etxerat itzuli direnak.

JENERALA . - Gerlari ohi bizien errespeturik ez baduzu, bederen hilena izan-azu...

GUARDA . - Hik, ohoratzen ahal dituk gerlako hilak ? Hirekin zirenak, bai, bainan hire kontra zirenak ? Munduko legea duk, irabazleri zernahi ohore emaita. Galtzaileak aldiz, nehork ez ditik aipatzen ere, despresatzeko baizik.

JENERALA . - Karabinero, arma ! Prepara zure arma !

GUARDA . - Errak to, hi jenerala, bertze hire iduriko hainitzek bezala, uste duk hik ere, gerlan bildu galon eta medaila horiek, emaiten dautzuetela, bakea gobernatzeko eskubidea eta gaitasuna. Bi ofizio arras desberdinak dituk gero soldadoen manatzea eta zibilen gobernatzea.

JENERALA . - Karabinero, bota tiro, bota... Garbi gizon hori !

GUARDA . - (*Tirahala gorderik, mintzo da oihal gibeletik*) Zonbat gizon hil arazi dituk, to, hire galon horien irabazteko ? (*Karabinerok ez du tirorik botatzen*)

JENERALA . - (*Errabian*) Armada oso bat baino lanjerosago da holako gizon bakar bat... Terrorixta hil hunen bonba, fitsik ez da, fitsik, horrek gogo bihotzetan sartzten duen pozoinaren aldean !... (*Eztituz eta fermuki mintzo*) Errazu, karabinero !

KARABINERO . - Zer da, jeneral jauna !

JENERALA . - Ahantz zatzu guarda zirtzil horren solasak. Eta, orai artino bezala, jarraik zaitte zintzoki, zure soldado edo gizon eginbideri !

KARABINERO . - Bai, jeneral jauna !

JENERALA . - Mugen zaintzeko, armadak beti izan dira eta izanen dira. Armadak dira sakratuak !...

KARABINERO . - Bai, jeneral jauna !

JENERALA . - Bon, ongi da... Eta, terrorixta huntaz behar dena egin duzulakotz, ukanen duzu saria. Medaila bat eskatua dut zuretzat.

KARABINERO . - Milesker, jeneral jauna !

JENERALA . - Hil hunen inkesta bururatu-eta, berriz etorriko naiz. Eta, orduan, hemen berean egingen dugu, zure ohoratzeko zeremonia.

KARABINERO . - Ongi da, jeneral jauna !

JENERALA . - Beraz, laster artio. *(Jalitzen da. Karabinero bakarrik... Bere buruaz irriz, sakelatik diru pieza handi bat jalitzen du eta medailen lekuan entseiatzen bezala. Gero ateratzen da)*

ERTZO . - *(Sartzen da bere orgatxoarekin, alegeraki adiaraziz abertzale kantu bat)*

"Bat, bi, hiru, lau *(Bis)*

Bortz, sei, zazpi *(Bis)*

Euskotarrek irabazi."

Nere ametsa azkenean bururatu da... Berria zabaldu da... Muga hau kentzen dutela... Tralala, tralala... Gerlabide bat gutiago. Hola bederen bizitzen ahalko gira, denak anai bezala eta baxotza gurearen jabe. Tralala... Tralala... Bon, behar ditut berehala zilo batzu egin eta lore batzu landatu. *(Lanean ariz)*

Xorientzat, mugarik ez da... Lanoentzat ere ez... Lurreko ihizientzat ere ez...

Itsasoko arraintzat ere ez... Zergatik beraz gizonentzat ?... Tralala, tralala...

Laster, muga leku idor hau ikusiko duzue denen biltoki goxo bat bilakatua.

MATRONA . - Zer ari haiz hor, Ertzo ?

ERTZO . - Lore landatzen, baratze bat muntatzeko.

MATRONA . - Zer uste duk ? Mugazainek onartuko dutela, hik bide hau hola xahutzea ?

ERTZO . - Ha, ez zinakien ?... Ez da gehiago mugarik ! Denen kentzerat doazi.

MATRONA . - Nork sartu dauk ziri hori, to ?

ERTZO . - Berria zabaldua da. Besta handi bat apailatzekoa dute hemen berean. Izanen dira dantzak, kantuak, supanpak, den-denak. Ordutik harat, joaiten ahalko zira mugaz bestalderat, deus paperik gabe... Eta hango jenerala, zu harat bezala, berdin hunarat jiten ahalko da.

MATRONA . - *(Kexu)* Errak to, hi eroa, badakika zer diokan ?

ERTZO . - Jeneralak, bihotz zabala du. Eta, zu ez bazira kontent, segur naiz hura hala izanen dela !

MATRONA . - Hago ixilik edo ukanen dituk gero bi zaflako.

ERTZO . - Utz-atzu bazterrerat gaxtakeriak... Zure bihotza goxa dadiela. Muga hau kenduz geroz, zuk ere, traba gutiago ukanen duzu amodiozki bizitzeko !

MATRONA . - *(Bi zaflako emanaz)* To-tzik bi berogailu, hire amodioa goxatzeko, ero paper egile faltsoa hi... Eta, ez bahaiz hortik laster aldatzen, ukanen duk laster bertzerik ere. *(Jalitzen da)*

ERTZO . - Hee !... Nik zer egin dautzut zuri, zuk ni hola jotzeko !... *(Bakarrik)*

Zer mila sorgin iragan zaio burutik emazte horri, hola sutan jartzeko ? Ala, amodio garbia ez ote du maite ? Nik ez dezaket ba bertzerik eskain !

GUARDA . - *(Agertuz)* Lan gaitzean ari haiz to, Ertzo !

ERTZO . - Ba, zilo egiten ari naiz, loren landatzeko.

GUARDA . - Ongi eginen huke, zilo horietan bertan sartzen bahitu, saskitan diren gorputz puska horiek !

ERTZO . - Ba, xede hori bera dut. Zeren-eta, gorputz hori ez da hila. Beti bizi da eta, pixka bat tratatuz geroz, emanen du fruitu.

GUARDA . - Guk ere lehenago, zerri hiltzetan, zerri buztana baratzean landatzen ginian. Handik etortzen zitukan gero zerri kumeak.

ERTZO . - Ha, nik ez dakizkat, zuk bezenbat zerri aferak. Bainan, beti entzun dut, hainitz gizonek, lurpetik lan gehiago egiten dutela, lurraren gainean bizi zirelarik baino.

GUARDA . - Bazukek hori ere, Ertzo. Haatik, lanean gaizki ari haiz. Mugaren bi eskualdeak nahi badituk elkartu, bidea behar duk zilatu, ez bakarrik eskualde huntarik, bainan bertzetik ere.

ERTZO . - Xede hori bera dut, nik ere eta berehala banoa bertzalderat. *(Bere orgatxoekin muga trebesaturik, lotzen da lur zilatzen. Guarda irriz ari so dago)*

JENERALA . - *(Agertuz)* Hep, hep, hep !... Zer ari zira hor, gizona !...

ERTZO . - Jes, ez duzu ikusten zilo egiten ari naizela !

JENERALA . - Zilo egiten ?...

ERTZO . - Ba, muga hau hemendik kentzeko !

JENERALA . - Heee ?... Beraz, bonba ezartzeko ! *(Hartzen du lepotik)*

...Terrorixta !... Terrorixta !... Karabinero, hel, hel laster !... *(Ertzok ere jenerala hartzen du lepotik. Karabinero heldu da)*

JENERALA . - Bota gateak !... Gateak esku muturretan !... *(Karabinerok obeditzen du. Hats hantua)* Ha, ha !... Terrorixta bandidoa !... Preso !... Doala laster preso !... Kasu... Begiak idek !... Beharbada lagunak baditu !*(Karabinero aintzinean, Jenerala gibeletik pusaka, Ertzo joaiten dute. Guarda bakarrik gelditzen da, irriz usteldua)*

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Aintzineko bera... Gorputz puskak, bi metetan dira, taula gain bazterrean. Saskiak hutsak. Karabinero seinale da bere etxolan.

JENERALA . - *(Sartuz, urrats idor batean)* Bai, bai, egun ditugu malobrak !... Malobra handiak !... Nahaskeri gehiegi gertatzen da muga huntan !... Hemen behar dugu ezarri ordrea, ordrea... Gaxtoak ken !... Onak bakarrik bizirik utzi ! Zikinkeriak garbi, garbi ! Hortakotz etorria naiz hunarat... Gobernuak igortzen nau hemengo gorabeheren jujatzerat.

GUARDA . - To, hor haiz, gaizoa ! Zer duk, to, hoin kexu izaiteko ?

JENERALA . - Jakin-azu, ez naizela batere irrigura. Eta ere, gaur hemen irri egin nahi lukenari, sartuko diozkatala nik bere irriak.

GUARDA . - Zer gertatzen zaik ba, gaizoa ? Zer ukan duk : Etxean su ? Edo, zer hau, andereak etxetik kanpo ezarri ?

JENERALA . - (*Haserre*) Zu, zure onetan, ez zaitela sekulan sar mugaz hunaindirat. Ez baitzinuke gehiago horrat itzultzerik.

GUARDA . - Bazakiat, bazakiat hori, hik bietan erran gabe. Gure Ertzo ere hor daukazue preso. Nik ez zakiat zer kalte egin dautzuen gizagaizoak, ez eta ere, zergatik, Madrileko hire jaun buruzagiek duten gizon horrentzat, holako beldurra.

JENERALA . - Gaur arratseko, hemen gertatu guziak, argi eta garbi jakinen dira. Hortako naiz hunarat jina : "Irina zahitik berezteko eta ardia otsotik". Nahi dut, ni hemendik urruntzean, muga hau utzi trebes diren guziak xuxendurik. Denen jujatzeko, sariztatzeko edo gaztigatzeko, eskugain osoa badut. Nere jokabidea izanen da legezkoa, argia, fermua.

GUARDA . - Debruentxoa ! Hi beraz, denetako on haiz : Gerla egiteko, erresuma gobernatzeko, auzien trenkatzeko... Ahantzi gabe Santo Kristo salbatzeko eta garaño lanetako...

JENERALA . - (*Haserre gorrian*) Zerria eta ustela, horiek dira merezi dituzun bi konplimendu lañoenak. Larrua zilaturik, putzurat joaitea da, zu bezalakoak merezi duen zortea.

GUARDA . - Errak to, nola behar haugu, hi, orai deitu ? Generalisimo, Etselentisimo, Sumarisimo ?... Zonbat "si" eta zonbat "no" dituk horien gainerat ?

JENERALA . - Trufa zaite nitaz, nahi duzun bezenbat. Bainan, ikusten duzu hil hori ! Jakin-azu, orai beretik, gaur iluneko, bertze holako bat izanen dela, muga huntan. Azken aintzina... zure, bainan azkena... nere !

GUARDA . - Zer haiz ? Ihizirat joaitekoa ?

JENERALA . - Apur baten buruan, Ertzo hunarat ekarriko baitugu estekaturik, ongi beha-zozu. Azken aldikotz ikusiko baituzu !

GUARDA . - Guti ezagutu diat, nere bizian, hire balioko auzi-jujatzalerik. Bertzek jujatu ondoan, ditek gaztigua neurtzen. Hik aldiz, gaztigua neurtu ondoan, duk jujatzen. Nere ohoreak hire talenduari !

JENERALA . - Ba, eta jakin-azu, bazela hemen gaur, Ertzorekin jujatzekoa, zure eskualde hortako bertze gizon bat ere !

GUARDA . - Ha ba ?... Nor ote ?...

JENERALA . - Zu !

GUARDA . - Ni ? Hau berri pizkorra !

JENERALA . - Zu, ba, zu ! Segur baino segurago baigira, zu zirela terrorixta hil horren eta bertze zonbaiten laguntzailea. Zorigaitzez, zuen gobernu ustelak ez du onartu, zu, guri libratzeko, eskaini diogun tratua.

GUARDA . - Beraz nahi zinuten xoria bipildu, bainan ez duzue bildu... Haatik, gauza bat ez dut xuxen kausitzen.

JENERALA . - Zer ?

GUARDA . - Zera... Muga hunaindiko hirutarik bi, Ertzo eta ni, belzten gaituzue. Nola uzten duzue bakean eta xuri, gurekin den Matrona, hirugarren hori ?

JENERALA . - Hori ez delakotz hobendun.

GUARDA . - Jes, harritzeko duk, hik ez jakitea, guk, hemen, denek dakiguna.

JENERALA . - Zer ?

GUARDA . - Matrona hori, astean behin, gau bat iragaiterat, joaiten dela hire eskualde hortarat !

JENERALA . - Gau bat ? Norat ? Norekin ?

GUARDA . - Ez duk guri horren salatzea... Ez gaituk, gu, Matronaren aingeru begiraleak. Hori, hire ofizioa duk.

JENERALA . - Hee ! Nola ari zira ? Mintza zaite argi eta garbi.

GUARDA . - Ez hadila, gaizoa, hola sutan jar ! Eta, ez zakala xehetasunik galda. Badakik berdin arras ongi, gatu horrek baduela bertze buztanik. (*Irri gaxto bat eginez, jalitzen da*)

JENERALA . - (*Bakarrik errabian*) Zintzurra moztuko niokek gizon horri. Hemen ez badezaket kausi, berdin, den tokirat joan-eta...

FRAILE . - (*Agertuz, bizi-bizia mintzo*) Jeneral jauna !

JENERALA . - Zer da fraile-aita ?

FRAILE . - Gauzak arras makur doatzi hemen gaindi eta, hola segituz, nahasmendu itsusienak piztuko dira.

JENERALA . - Zer derasazu ?

FRAILE . - Badakizu nola gure radio-telebista eta kazetek, gaitzeko burrunba dabilkaten, berria zabalduz, hemengo hil hau, terrorixta lanjeros bat zela.

JENERALA . - Ba badakit. Manua ukana dute, gisa hortarat joka diton, gertakari huntaz baliatu nahi baitugu, gure kontrarioen belzteko.

FRAILE . - Ba, bainan, ote dakizu nor den terrorixta delako, hil hau ?

JENERALA . - Dakidana da Oiartzuar bat dela, bere tratuen egiteko, mugaz gaindi usu zabilana.

FRAILE . - Bainan ote dakizu, mutil hori dela herrian, orok estimatua eta nehork ez diotela hitzik sinesten, terrorixta zela kondatzen duteneri ?

JENERALA . - Eta gero ? Zer zaigu guri terrorixta izan zadien ala ez ? Ez gira hunat jin, hil baten jujatzerat, bainan, heriotze hau baliatuz, propaganda gure alde muntatzerat !

FRAILE . - Eta arrastatu duzun Ertzo hori ! Propagandak dionaz, frantses terrorixta bat da, hil hunekin eskuz-esku zabilana. Zer diozu hortaz ?

MATRONA . - (*Agertuz*) Jauna, nahi nuke zurekin buruz buru mintzatu.

JENERALA . - Zaude otoi beha apur bat ! (*Matrona ateratzen da... Ez da kontent*) Badakit arras ongi, Ertzo hori dela, burutik harrotua den gizagaizo bat. Manua dut horren hiltzerat kondenatzeko. Bainan ez dugu hilen !

FRAILE . - Zer ba !

JENERALA . - Segur gira, eskualde guzietarik jinen direla telegramak, kondenatu horren ez hiltzeko. Ez dugu beraz fusilatuko, bainan betiko presondegirat kondenatuko. Hola, gobernuak ukanen du padara, munduari erakusteko, ez duela zonbaitek dioten bihotz gogorra eta badakiela atea zabaltzen barkamen deieri.

FRAILE . - Bainan, hemengo jendeak ezagutzen ditu hila eta Ertzo. Eta beraz konturatuko da, horien inguruan egin propaganda guzia gezurrezkoa dela.

JENERALA . - Ba, bainan hemengo jendeak dakiena, hemen gelditzen da. Hemengo jendeak ez du, dakienaren urrun hedatzeko ahalik. Propaganda egiteko tresneriak eta indarra, guk dugu bakarrik, guk, gobernukoek.

FRAILE . - Zu hola mintzo zira. Bainan uste duzua, hemengo jendea, ixilik eta geldirik egonen dela, gezurpean itoa ? Hil horiek badituzte beren etxeakoak, adixkide-ta ezagunak !

JENERALA . - Izanen dira batzu mugituko direnak. Bainan, poliza ez ote dugu hor, gure mutil, holakoen bentzutzeko ? Eman dezagun ehunetik hamar mugitzen direla. Zer dezakete horiek, eskupeko ditugun hoinbertze polizgizonen

kontra ? Armez guri oldartu ? Aski ditugu fusilatzea hamar, ehun, mila ! Zer zaigu guri ? Hil gehiago eta etsai gutiago !

MATRONA . - (*Agertuz*) Jauna, baitezpada nahi zintuzket mintzatu.

JENERALA . - Erran dautzut jada apur bat goaitatzeko ! (*Matrona kexu ateratzen da*)

FRAILE . - Zuk aipatu jokabide hortan, nun dira kontzientzia, egia, gizon legea ?

JENERALA . - Politika da gerla, fraile-apeza. Gerlan, bazterrerat utzi behar dira kontzientzia, egia eta gaineratekoak. Azkarrenak baitu gerla irabazten, ikusi behar duzu bakarrik, nola izanen ziren etsaia baino azkarrago. Bertzerik ez.

FRAILE . - Zu soldado bezala mintzo zira. Bainan, politika ez da gerla. Gizon eta apez bezala, nik, gauzak, arras bertzela ikusten ditut.

JENERALA . - Oroit zaite, zuek eta gu, elgarri, uztartuak girela. Gu erortzen bagira, zuek ere ereriko zireztela.

FRAILE . - Bainan hola-hola, ez ote gira jada eroriak ?

JENERALA . - Gure ezpata hor duzue zaindari. Gobernuko diru eta ohoreak, zuen laguntzaile. Norat zoazte sustengu horiek guziak galduz geroz ! Hor ikus !

FRAILE . - Apez egin nintzen, pobren eta indargaben, oroz gainetik, zerbitzatzeko. Eta, nere burua ikusten dut urrearen eta indarraren mutil. Nola libra presondegia huntarik ! (*Ateratzen da*)

JENERALA . - (*Bakarrik*) Hori ere hasia duda-mudaka ! Gaurko apezek, sobera denbora galtzen dute beren buruarekin pentsaketan eta Jainkoaren etsaiekin solasketan ! Zampak nahiago dituzte, eman baino, hartu ! Gaixo ixtupak !

MATRONA . - (*Agertuz, asaldatur da*) Ha, ez da goizegi bakarrik baitzira !

JENERALA . - Zer gertatzen zaizu !

MATRONA . - Izigarriak egin ditut, nere buruaz ahalge naiz... Heldu naiz, denak zuri aitortzerat !

JENERALA . - Zer ba !

MATRONA . - Atzo arratsean, frantses polizak arrastatu ninduen eta galdezka luze batzuetan erabili.

JENERALA . - Eta gero !

MATRONA . - Oro aitortu ditut... (*Bizi-bizia*) Bainan, aintzinetik denak bazakizkan.

JENERALA . - Zer aitortu duzu ?

MATRONA . - Zera... Zurekin nola nabilan. Eta nola, astean behin, elgartzan giren.

JENERALA . - (*Haserre*) Zer ! Hori salatzen ari izan zirea ?

MATRONA . - (*Erdi nigarrez*) Ho, barka zadazu ! Hoinbertze nahasi naute beren galdekin ! Hasteko, jada den-denak bazakiten !

JENERALA . - Salatu diozute, gaua elgarrekin iragaiten dugula ?

MATRONA . - Ba, ba, dena... Bainan, aintzinetik oro bazakiten !

JENERALA . - Ha, ustelak !... Eta zuk, ez dakizu, ez dela polizari sekulan deus salatu behar ?

MATRONA . - Ba, bainan hoinbertze burtxoratu naute, nekatu, ikaratu !... Ez nakien gehiago nun nintzen.

JENERALA . - Eta, bertzerik ere galdatu dautzutea ?

MATRONA . - Ba, terrorixta hau, nork eta nola hil duten ?

JENERALA . - Eta, hori ere salatu diozutea ?

MATRONA . - Ba.

JENERALA . - Zuk, zer zinakien hil huntaz ?

MATRONA . - Den-dena banakien.

JENERALA . - Den-dena ?... Nola ez dautazu ba fitsik erran ?

MATRONA . - Ez naiz ausartu.

JENERALA . - Zer duzu ! Fidantzia gehiago frantses poliza ustelen, ni baitan baino ?

MATRONA . - Ez... Badakizu ez dautzutala sekulan fitsik gordetzen !

JENERALA . - Eta, zergatik ba hau ? (*Matrona ixilik dago*) Terrorixta hau nork hil duela, diozute salatu ?

MATRONA . - Karabineroak.

JENERALA . - Karabineroak ?

MATRONA . - Ba, horrek dio eskutan ezarri paketa bat, eskatuz holako lekurat otoi ereman zezan. Paketa hortan, bonba bat bazen. Bonba hori zartaturik, izan da hola puskatua.

JENERALA . - Eta zuk, nola dazkizu xehetasun horiek ? (*Matrona ixilik*) Mintza zaite !

MATRONA . - Nik errana nion, hil horrek, diru hainitz berekin ibiltzen zuela.

JENERALA . - Ha, orai denak konprenitzen ditut. Beraz, xpiunak gainean nituen. Eta orai, bildu naute beren saretarat.

MATRONA . - Ho, barka zadazu otoi ! Ez nuke zurekin samurtu nahi... Zurekin, lehen bezala nahi nuke izan.

JENERALA . - Bon... Orai, erraitekoak erranak ditugu ! Ez gaiten bi oren hola egon ! Engoitik ikusiak gaituzte ! Zoaz hemendik ! Gero erranen dautzut nun eta noiz elgar ikusi. (*Matrona ateratzen da. Bakarrik*) Urdeak ! Urde ustelak ! Atera diozkazue nahi zinituzten guziak ! Bildu duzue bazka, ni zikintzeko eta lehertzeko ! Munta-azue, munta, kontra-propaganda. Bainan ez dik horrek xurituko zuen Ertzo. Asta pullo hori !

FRAILE . - (*Agertuz, kazeta batzu eskutan*) Kazeta batzu, frantses, aleman eta inglesak, ekartzen dauzkizut, jeneral jauna. Zutaz eta hemen ideki behar den auziaz mintzo dira !

JENERALA . - Zer derasate ?

FRAILE . - Gizon gazte hau, karabineroak hil duela. Krime hori egin duela diruarengatik. Frantses matrona, zure amoranta dela. Hemengo auzi hau, komedi bat hutsa dela. Auzo erresumetako radio-telebixtak ere mintzatu direla hemengo auziaz... Huna artikulu luze batzu... Zure fotoa, matronarena, karabineroarena hor daukazu.

JENERALA . - Beraz gerla... Gerla nahi dute ! Gerla nahi balinbadute, ukanen dute.

FRAILE . - Presatua bainabila, etorri bezala, lasterka banoa. (*Ateratzen da*)

JENERALA . - (*Kazetari so... Gaitzeko kexuan*) Zerriak ! Zerri zikinak... Jenden bizi zikintzale ustelak !... Ikusiko diagu nork joanen dituen azken tantoak. (*Karabinero deituz*) Karabinero, zato hunaraino ! (*Heldu zaio*) Errazu, Karabinero, irakurtu dituzu gaurko kazetak !

KARABINERO . - Ez, jeneral jauna !

JENERALA . - Badakizu nor den hemengo krimaren egilea ?

KARABINERO . - Nik ez, jeneral jauna !

JENERALA . - Kazetek diote zu zirela hiltzalea...

KARABINERO . - Gezurra hori !

JENERALA . - Matronak salatu du, berak lagundurik hil duzula mutil hau.

KARABINERO . - Gezurra, jeneral jauna.

JENERALA . - Ba, eta ere, hau hil duzula diruarengatik.

KARABINERO . - Gezurra !

JENERALA . - Egia dea kazetek diotena : Zure emazteaz bertzalde, baduzula bigarren bat eta harekin zernahi diru xahutzen duzula !

KARABINERO . - Gezurra ! Hasteko, jeneral jauna, gure ofizioko eginbideak betez geroz, gure bizi berezian, nehork ez du sudur sartzerik.

JENERALA . - Hortan, zurekin ados nago. Haatik, azken galde bat : Zintzoki eginen dautzut eta nahi nuke zintzoki ihardets dezozun... Hitzemaiten dautzut zure errepusta ez dudala nehoi salatuko, ez eta sekulan zure kontra baliatuko. Beraz huna nere galdea : Zin egiten duzua, zure soldado ohorearen gainean, zure haurren buru gainean, gurutze sainduaren gainean... Zin egiten duzua, ez duzula zuk krima hau egin ?

KARABINERO . - Bai, zin egiten dut !

JENERALA . - Ongi da. Ez nuen bertzerik espero zeganik. Haatik, beti oroit zaite, hitzak hitz direla. Sekulan, aditzen duzu, sekulan, torturatu edo hilik ere, ez zaitela alda zure solasetan. Zaude beti aitormen beretan.

KARABINERO . - Hitzemaiten dautzut, jeneral jauna.

JENERALA . - Bon, orai itzultzen ahal zira zure etxolarat ! (*Ateratzen da... Jenerala bakarrik*) Laket zait aurkitzea, arropa bezain fermu, bere solasetan, egonen den gizon bat. Badakit gezurrean zin egin duela. Hobe... Hola, arrazoin bat gehiago ukanen baitu, bere hartan tink egoiteko. Ba, egiazki merezi eta ukanen du bere medaila. Eta, gainerat, ohore handiekin. Datozila, etsai propaganda egile guziak. Nik ez dut ahorik idekiko. Horrekin mintza daitela !

GUARDA . - (*Agertuz*) Hor haiz to, jenerala !

JENERALA . - Zer nahi duzu ?

GUARDA . - Irriz heldu nauk, irriz huna zer gertatzen den. Ertzo jujatu behar omen baituzue eta Ertzo, frantsesa baita, Frantziako gobernuak eskatu dik Espainiakoari, hemengo norbait izan dadien hor, Ertzoren alde mintzatzeko... Espainiako gobernuak, bere baietza eman dik... Eta, hortako nauk hemen, ofizialki, frantses abokat bezala, Ertzoren laguntzeko.

JENERALA . - Auzi huntan barne sartzea nahiagoko nuen edozoin frantses, bai eta zakur bat ere, zu baino... Bainan, manua hola denaz geroz, manua errespetatuko dut. Haatik, ez baitut nahi zure zangoek zikin dezaten Espainiako lurra, auzia eginen dugu, hemen berean, muga hegian... Eta zu, mintzatuko zira, mugaz bertzaldetik.

GUARDA . - Ongi duk gizagaizoa. Hola hobeki ageri duk, nola zuen auziak diren komedia huts batzu.

JENERALA . - (*Oihuz*) Karabinero, ekar-zkitzu hunarat Ertzo eta Pexeta !... (*Guardari*) Berehala hasiko dugu gure auzia. Ni, jartzen naiz. (*Jartzen da saski gainean*) Zu ere, jar zaite, nahi baduzu edo zaude xutik !... Zuhauerek ikus !

GUARDA . - Nik ere, hik bezala, nahiago diat jarririk. (*Jartzen da bertze saskiaren gainean*) Jainkoari esker, gibel-aldea oraino sano baitut.

KARABINERO . - Huna, jeneral jauna, Ertzo eta Pexeta. (*Ertzo estekatua da*)

JENERALA . - Bon, hurbil zaitetze biak hunarat ! Legez ari gaiten, auzia ideki baino lehen, agertuko ditugu bakoitxak gure titreak... (*Xutiturik*) Ni naiz El

Etselentisimo Juzgador del Sumarísimo, Justicia Mayor de España, una, grande, libre. (*Jartzen da*)

GUARDA . - (*Xutiturik*) Eta ni naiz, El Kaporalísimo de Justicia Menor de la República de Frantzia, Liberté, Egalité, Fraternité. (*Jartzen da*)

JENERALA . - Bon, auzia idekia da. Ertzo jauna, huna zure kontrako akusamenduak. Hiru handi dituzu eta bospasei ttipi. Bainan, ttipiak baztertuko ditugu eta hiru handiak bakarrik aipatuko.

GUARDA . - Ez naiz hortan ados. Handiak agert eta ttipiak gorde, hori duzua ttipien errespetua ?

JENERALA . - Lehen akusamendua duzu "bandolerismo", mandilkeriazkoa, andere Pexetari egin diozun laidoarengatik. Horrentzat merezi duzu hiltzea - Pena de muerte-

GUARDA . - Bai, pexetako laidoarentzat !

JENERALA . - Bigarren akusamendua duzu "terrorismo", terrorixta izan zirelakotz, bonba bat nahi baitzinuen ezarri muga bidean. Horrentzat ere merezi duzu hiltzea -Pena de muerte-

GUARDA . - Ohartarazten zaitut, Etselentisimo, zuk bonba hori aipatzean, karabinerok egin duela irriño bat.

JENERALA . - Hirugarren akusamendua duzu, armadarentzat agertu duzun errespetu eskasia -Injuria a la Armada-, Karabinero huni eman baitiozkatzu errepusta gaxtoak. Horrentzat merezi dituzu berrogoitamar urte presondegi - Cincuenta años de prisión mayor-

GUARDA . - Beraz, gaizo Ertzo, ukantzak esperantza !

JENERALA . - Horra hiru akusamenduak. Gure auzia hasiko dugu lehenetik.

GUARDA . - Barkatu, Etselentisimo, nik nahiago nuke auzia hasten baginu hirugarren akusamendutik.

JENERALA . - Zergatik ? Zer arrazoin duzu hortako ?

GUARDA . - Zeren-eta, zuen Justicia hobeki errespetatua liteke.

JENERALA . - Akusamenduen lerrokada ez dezakegu alda... Legea lege da.

GUARDA . - Bertze xehetasun bat ere nahi nuke jakin.

JENERALA . - Zer ?

GUARDA . - Akusatuak ukaiten baditu bi hil gaztigu, zer gertatuko da ? Bietan fusilatuko ote dute ala zer ?

JENERALA . - Horrek erran nahi du, akusamendu batengatik ez badute hiltzen, bertzearengatik hil dezaketela !

GUARDA . - Hori ere ez da xuxen, bi aldiz hiltzerat kondenatuak, bi aldiz merezi du fusilatzea, eta ez behin bakarrik.

JENERALA . - Huntan ere, legea lege da... Lot gaiten beraz lehen akusamendutik. Andere Pexeta, konda-azu gertatu dena. Mintza zaite argi eta garbi eta ahalaz laburzki.

GUARDA . - Anderea izanagatik.

JENERALA . - Eskatzen dautzut, jauna, anderen errespetua.

GUARDA . - Bai, Etselentisimo, eta partikulazki bakotxa-berearena !

JENERALA . - Mintza zaite, andere Pexeta.

PEXETA . - Ba, zera zen... ortziralea... Edo ez... larunbata naski... Ba hala zen. Nere xuriket eguna baitzen.

GUARDA . - Ez andere Pexeta, astearta zen.

PEXETA . - Segur zirea ? Ni beti, egunekin galdua nabila. Haatik, segur naiz goiza zela !

GUARDA . - Ba, goizeko biak et'erdiak !

PEXETA . - Biak et'erdiak ? Ez, ez... Iguzkia gora zen.

GUARDA . - Bai, eta itzala behera !

PEXETA . - Itzala behera ? Jaun jujea, gizon hori, ni arras nahasten ari da...

JENERALA . - Aintzinat, andere Pexeta, aintzinat !

PEXETA . - Ba, Ertzo etorri zen nere komunetarat... Zera egin behar zuela.

GUARDA . - Zer "zera" ? Zer da "zera" hura ?

PEXETA . - (*Haserre*) Denek egiten duguna... Zer nahi duzu izaitea ?...

GUARDA . - Denek egiten duguna... bainan laburra ala luzea ?...

PEXETA . - Nik dakita !

GUARDA . - Behar baiginuke jakin !

JENERALA . - Aintzinat, aintzinat, andere Pexeta.

PEXETA . - (*Abantxu nigarrez*) Ba... zera... etorri zen Ertzo...

GUARDA . - Zonbat orenetan ?

PEXETA . - (*Nigarrez hipaka*) Jaun jujea, ni ez naiteke hola mintza. Gizon hori, ixilaraz zazu ! (*Mokanesa ezin harrapatuz ari da, begien xukatzeke*)

GUARDA . - Ez duzuia mokanesik ?... Nahi duzuia nerea prest ?

JENERALA . - Bon, aski, andere Pexeta... Zurea entzun dugu. Orai, mintza bedi Ertzo !

ERTZO . - Ni, ez naiz espainolez mintzatuko. Euskaraz bakarrik... Gorputz bat bazen, hemen muga, zazpi pusketan. Lau hemen eta hiru han... Nik nahi nituen zazpi puska elgarrekin ezarri... Ez omen... Zazpi puska horien elkartu nahia, gaxtakeria omen da... Eta gaxtakeria ere omen da, muga hau hemendik kendu behar litekela, aipatzea... Horra jauna.

JENERALA . - Bon, hemen Espainian baigira, orai errazkitzu espainolez, euskaraz erran dituzun guziak.

ERTZO . - Ez jauna... Ni, euskalduna naiz eta euskaraz naiz bakarrik mintzatuko !

JENERALA . - (*Haserre*) Zer !... Baduzu kopeta !... Ahantzi ahal duzu nori mintzo ziren ! Ordrea emaiten dautzut, espainolez mintzatzeko.

ERTZO . - Ez jauna... Ni euskalduna naiz.

JENERALA . - Mintza zaite espainolez edo berehala preso sartzen zaitut...

ERTZO . - Euskaraz naiz bakarrik mintzatuko...

JENERALA . - (*Haserre gorrian*) Karabinero, eremazu berehala gizon hau presondegirat. Han ezarriko duzu gela ilunean, ur eta ogi xoilekin. (*Karabinerok joaiten du Ertzo*) Eta, gertakizun hunen gaztigu, ukanen dituzu bi urte presondegi, bertzen gainerat.

GUARDA . - Nik ez dut, Etselentisimo, onartzen gaztigu hori, eta diot, auzi hau ez dela legezkoa. Gaurko egunean, den nazione gibelatu arruntenetan, onartzen dute, akusatua mintza dadien bere etxe eta herrikoen hizkuntzan. Nola, ez, zuen Espainia hortan ?

JENERALA . - Hori, gure ikustekoa da eta ez bertzena. Eta orai, jarraik gaiten gure auziari... Zerbait balinbaduzu oraino erraiteko Ertzoren alde, mintza zaite !

GUARDA . - Bai, Etselentisimo, hau da nik onartzen ez dudana. Zergatik presuna batek pagatu behar duen komunerat joaiteko ! Xinan eta bertze asko erresumetan, komunerat joailea da ordaintzen, han uzten dituen

aberastasunengatik. Ez dakizua gizonen eginbeharrak direla ongailu hautak ? Hetan aurki ditazkela otzigena, hidrogena, urea, azida urika eta bertze holako zonbait ?

JENERALA . - Bai, eta alkola ere, zu komunetarat joaiten zirelarik.

GUARDA . - Mikroba zifilitika aldiz, zu joaiten zirelarik.

JENERALA . - (*Xutitua, errabian*) Zer erran duzu ?... Zer !

PEXETA . - (*Bien artean sarturik*) Otoi, jaunak, otoi !

GUARDA . - Ez dut gaxtakeriarik atera... Inbidoari "iduki" bota baizik. (*Eztitzen dira*)

JENERALA . - Bon, mintza gaiten orai, bigarren akusamenduaz. Ertzok, muga hau nahi du hemendik kendu.

GUARDA . - Bai, eta ni hortan, Ertzoren alde naiz.

JENERALA . - Jakin-azu behin betikotz, Espainiako lurra ez dela saltzeko... Lur hau sakratua baita. Hunek ditu hazi : Karlos Kinto eta Cisneros, Isabel la Katolika, Felipe Segundo eta Franco.

GUARDA . - Bai eta Frantziako lurra ere sakratua da : Hunek baititu hazi Charlemagne eta Jeanne d'Arc, Louis XIV, Napoleon eta De Gaulle.

JENERALA . - Harritua nago, muga kentzearen alde nola izan zintezken zu, mugazaina, zure ogia muga huntarik jaten duzuna.

GUARDA . - Hola jokatzuz, ez naiz batere nere buruari harrika ari, bainan nere buruaren alde.

JENERALA . - Nolaz hori ?

GUARDA . - Zeren-eta, ez badugu laster, onez onean eta legez, muga hau husten, populuak hemendik kasatuko baigaitu, gibel aldean ostiko on batzu emanaz. Ez duzua senditzen nola populuan zabaltzen ari den gure kontra, herra eta kexamendua ?

JENERALA . - Populua ba... Populua edo zakurra berdintsu dira. Erakuts makila eta, tete zaharra bezala, populua hor izanen duzu herrestan, zure zangopean.

GUARDA . - Ba, zure makilak, behin izituko du populua. Bietan ere ba. Bainan kasu hirugarren aldiari !

JENERALA . - Ostikoen mentura biharkoa dugu. Gaur gertatzen denari beha diezogun. Ez ahal dituzu onartzen hemen ezarri duten edo ezarri zituzten bonbak ?

GUARDA . - Ba, bainan nor da bonben ezartzalea. Ez dautzua holakorik salatu zure Matronak ?

JENERALA . - (*Errabian*) "Nere" Matronak ! Zergatik "nere" ah... Zu ere pozoinatu zaituztea zuen alderdiko telebixt-kazeta ustelek ?

GUARDA . - Errazu nahi duzuna, bainan aitor-azu, Matronak, zure besotan pisatzen duela, behi zahar batek bezenbat.

JENERALA . - (*Arras erotua*) Zer !... Baduka kopeta, hi, apo madarikatua ! Nik, hi eta frantses arraza guzia, ezar nezazkek, sumendiak diren leku deserto batean ; eta, han utz nezazkek, jan edanik gabe. Elgarri har ditela ausikika, zakur errabiatuak bezala. Eta, orok, leher egin dezatela !

GUARDA . - Eta hola konplutua izanen duk hire Justizia Mayor, sumarisima !

JENERALA . - (*Moztuz*) Bon, auzia bururatua da... Andere Pexeta, libro zira... (*Kanporat abiatzen da*)

GUARDA . - Barkatu, bainan, hi jeneral gizagaizoa, zer gaztigu ematen diok Ertzori ?

JENERALA . - *(Ateratzen, deusez bat balitz bezala)* Bi aldiz hiltzerat kondenatua eta berrogeita hamabi urte presondegi... *(Gordetzen da)*

GUARDA . - *(Gibelezik jeneralari)* Neurri ona... Neurri ona... *(Bakarrik)* Alimale basa... Holakoak, etxean sartzerat uztea errexago da, ondoko egunetan handik kasatzea baino !*(Saski bat hartzen du eta, ixil-ixilik, lotzen da hura betetzen, bi metetako gorputz puskak elkartuz)*

OIHALA